



FAMILIAN JOLASEAN

3, 4 ETA 5 URTEKO IKASLE ETA FAMILIENTZAT

Neguko oporretan familian jolasteko saio bat antolatuko dugu Haur Hezkuntzako 3, 4 eta 5 urtekoentzat. Ekintzaren xedea familian euskaraz aisialdian aritzeko baliabideak eskaintzea izango da.

BI DATA AUKERAN

Familien disponibilitatearen arabera, bi data aukera eskainiko ditugu, partaide gehien biltzen dituen aukera jorratuko delarik:

Abenduaren 27a, astelehena
Abenduaren 29, asteazkena

Aukera bietan ordutegia 10:00etatik 13:00eta izango da. Taldea osatzeko gutxienez 12 partaide beharko ditugu eta gehienez 25 kide egongo dira saio bakoitzean.

Ekintzaren kuota familia bakoitzeko 12 eurokoa izango da.

Izena emateko epea abenduaren 9an itxiko dugu.



izena eman 